



# EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK II

## CINEASTAS VASCAS II

URRIA - ABENDUA / OCTUBRE - DICIEMBRE  
2022

Antolatzailea | Organizador

Kolaboratzaileak | Colaboradores

Informazio gehiago | Más información

**EUSKADIKO FILMATEGIA**  
FILMOTECA VASCA  
CINÉMATHEQUE BASQUE

**ARTIUM MUSEOA**  
MUSEO DE LAS BELLAS ARTES DE BILBAO

**BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA**  
MUSEO DE BELLAS ARTES DE BILBAO

**TABAKALERA**

[www.filmoteca.eus](http://www.filmoteca.eus)

# EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK II

Urritik abendura bitartean, Euskadiko Filmategiak euskal zinemari eskainitako programazioa izaten du urtero, eta atzera begirakoak edo ziklo tematikoak antolatzen ditu. Ildo horretan, hiru hiruhileko aurreikusitako Filmategiak 2021etik 2023ra bitartean, eta, haien bidez, balioa eman nahi zaie Euskal Herriko emakume zinemagileek film luzearen esparruan eginiko lanei eta erakutsitako talentuari. Proposamena argia zen: zaharretatik gazteenera, zuzendariok berek hautatu behar zuten film luze bat beren filmografiatik, proiektu honetan aurkezteko. Hala egin zen lehen denboraldia... Eta halaxe planteatzen da bigarrena ere...

Aurtengo zikloa *Carmen y Lola* (2018) film ausartarekin hasiko da, zeinari esker zuzendari berri onenaren Goya saria eskuratu baitzuen Arantxa Echevarriak. Lan hark garbi utzi zuen, beste behin ere, zer-nolako gaitasuna duen zinemak tabuak suntsitzeko. *Mujeres en pie de guerra* (Susana Koska, 2004) eta *La higuera de los bastardos* (Ana Murugarren, 2017) filmek gerra zibileraren eramango gaituzte: lehenbizikoak faxismoaren aurka borrokan ari diren emakumeen zuzendariaren testigantza baliatzen du bide horretan, eta bigarrenak, berriz, Ramiro Pinillaren eleberria du abiapuntu, Berlangaren distirekin.

Ione Hernándezen *1 % esquizofrenia* (2006) dokumentalaren bidez, poetikoki murgilduko gara gaixotasun baten bihotzean, aurreiritziak eraisteko. Esther Pérez de Eulatek, *Poética Pública PLAZA* (2010) obran eginiko behaketarekin, kalearen balioa aldarrikatzen du: "harreman publikoak" edo "jendarteko harremanak" iturri eta xede dituen agertoki gisa erakusten du kalea, eta haren balio estrategikoa, borrokarakoa eta poetikoa nabarmentzen du. *Toda la vida del mundo* (2010) obrarekin, Nuria Ruiz Cabestanyk bi esperientzia paralelo erakusten ditu, kontrako noranzkoan eginiko bi bidaia: batetik, umeei laguntzeko Etiopia aldera egiten duen euskal misiolariarena, eta, bestetik, alabari bizitza hobea eskaini ahal izateko Euskal Herrira datorren etiopiar gaztearena. *Aztarnak* (2021) lanaren bidez, Maru Soloresek bidaia oso pertsonal bat egiten du egungo amatasuna abiapuntu harturik, eta gizakiaren lehen momentuetako oroimenaren uestezko ezintasuna hartzen du xede. *Andrea* (Yolanda Mazkarian, 2020) obrak, bestalde, tonu errealista eta onirikoa uztartzen ditu, eta Mari edo Anbotoko dama pertsonaia mitologikoari buruzko galderak planteatzen ditu orainetik. *Asier ETA biok* (Amaia eta Aitor Merino, 2013) adiskidetasun baten kontakizuna, eztabaidarako gonbidapen bat eta film aske bat da.

Eskola-saioetarako, berriz, *Lucius Dumben berebiziko bidaia* (Maite Ruiz de Austri, 2013) programatu dugu, zientzia-fikzioaren eta giza eskubideen aldeko animazioaren aldeko apustu sendoa.

## Saio berezia: Pedro Oleari omenaldia

Euskadiko Filmategiko saio bereziak gaikako edo atzera begirako zikloekin taxutzen dira. Edizio honean, omenaldi xume baina sentitu bat egingo diogu Pedro Olea maisuari. Gure zinemaren ezinbesteko izen horren filmografian, nonahi ageri dira kemena, jakin-mina eta dinamika sozial makurrek zanpatutako pertsonaien ohiko erretatuak. Eta formari dagokionez, berriz, guztietan nabari da zer-nola menderatzen zuten zuzendari-ofizioa. *El bosque del lobo* (1970) filmarekin, erakutsi zuten gustuko zuela errealitatean ainguraturiko beldurrezko zinema, eta jada klasiko bihurtu da berak ekoitzi eta zuzendu zuten lan hori. *Zonbi eguna* (2015) film laburrari esker, Olearen alderdi berriago eta jostalariago bat ezagutuko dugu.

## IKURRAK / SÍMBOLOS



# CINEASTAS VASCAS II

Entre octubre y diciembre de cada año, la Filmoteca Vasca dedica su programación al cine vasco a través de retrospectivas o ciclos temáticos. En 2021 se inició un ciclo que tiene voluntad de llevarse a cabo hasta 2023: tres trimestres dedicados a poner en valor los trabajos y el talento de nuestras cineastas en el ámbito del largometraje. La propuesta era clara: en sentido decreciente por edad, ellas elegían el largometraje de su filmografía que les apeteciera presentar en el marco de este proyecto. Así se desarrolló la primera temporada... Y así se plantea también la segunda...

Se abrirá el ciclo con *Carmen y Lola* (2018), película valiente que supuso el Goya a la mejor dirección novel para Arantxa Echevarría y certificó una vez más la capacidad del cine para derribar tabús. *Mujeres en pie de guerra* (Susana Koska, 2004) y *La higuera de los bastardos* (Ana Murugarren, 2017) nos trasladan a la guerra civil: la primera desde el testimonio directo de mujeres en lucha contra el fascismo y la segunda a partir de la novela de Ramiro Pinilla, con destellos berlanguianos.

De nuevo desde el documental, *1 % esquizofrenia* (2006) de Ione Hernández, nos sumerge poéticamente en el corazón de una enfermedad para derribar prejuicios. *Poética Pública PLAZA* (2010) de Esther Pérez de Eulate reivindica con su observación el valor de la calle como escenario de y para las “relaciones públicas” o “en público”, de altísimo valor estratégico, combativo, poético en la vida social. Con *Toda la vida del mundo* (2010), Nuria Ruiz Cabestany muestra dos experiencias paralelas, dos viajes en sentidos opuestos: el del misionero vasco que se establece en Etiopía para ayudar sobre todo a los niños, y el de la joven etíope que viene a vivir al País Vasco para poder ofrecer a su hija una vida mejor. En *Aztarnak* (Maru Solores, 2021) hay un viaje muy personal desde una maternidad actual que mira hacia atrás hasta la supuesta imposibilidad de la memoria de los primeros momentos como seres humanos. *Anderea* (Yolanda Mazkieran, 2020) con tono realista y onírico a la vez, plantea preguntas desde el presente sobre el personaje mitológico de Mari o la dama de Amboto. *Asier ETA biok* (Amaia & Aitor Merino, 2013) es la historia de una amistad, una invitación al debate y una película libre en sus formas.

Para las sesiones escolares hemos programado *Lucius Dumben berebiziko bidaia* (Maite Ruiz de Austri, 2013), una sólida apuesta desde la ciencia ficción y la animación por los derechos humanos.

## Sesión especial: homenaje a Pedro Olea

Las sesiones especiales de Filmoteca Vasca se insertan en ciclos temáticos o retrospectivas. En esta ocasión, un humilde pero sentido homenaje se rendirá al maestro Pedro Olea, nombre imprescindible de nuestro cine cuya filmografía está atravesada por el valor, la curiosidad, el retrato habitual de personajes aplastados por dinámicas sociales perversas y en lo formal, el dominio absoluto del oficio de director. Con *El bosque del lobo* (1970) demostró su gusto por el cine de terror con un fuerte anclaje en lo real produciendo y dirigiendo lo que ya es un clásico. El corto *Zonbi eguna* (2015) nos permitirá conocer a un Olea más actual y juguetón.



# CARMEN Y LOLA

📅 **2022/10/13**  
📍 ARTIUM MUSEOA  
**VITORIA-GASTEIZ**  
🕒 **19:00**

📅 **2022/10/14**  
📍 TABAKALERA  
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**  
🕒 **19:00**  
👤 **Arantxa Echevarría**

🎬	Arantxa Echevarría
📅	2018
🌐	Espainia / España
🏠	Tvtec Servicios Audiovisuales. Javier Castro, Arantxa Echevarría, Pilar Sánchez Díaz
✍️	Arantxa Echevarría
🎭	Pilar Sánchez Díaz
🎬	Renato Sanjuán
🎵	Nina Aranda
👁️	Papick Lozano, Soledad Seseña
👤	Zaira Romero, Rosy Rodríguez, Moreno Borja, Carolina Yuste, Rafaela León
⌚	94'

Carmen nerabe ijito bat da, Madrilen kanpoaldean bizi dena. Beste edozein emakume ijitok bezala, belaunaldiz belaunaldi gertatu den gisan, aurreikusteko moduko bizitza izango du: ezkondu eta ahalik eta haur gehien hazi. Baina, halako batean, Lola ezagutuko du, oso arrunta ez den ijito bat: unibertsitatera joatearekin amets egiten du, hegaztien grafitiak marrazten ditu, eta desberdina da.

Carmen es una adolescente gitana que vive en el extrarradio de Madrid. Como cualquier otra gitana, está destinada a vivir una vida que se repite generación tras generación: casarse y criar a tantos niños como sea posible. Pero un día conoce a Lola, una gitana poco común que sueña con ir a la universidad, dibuja grafitis de pájaros y es diferente.

Hizkuntza / Idioma  
Gaztelania / Castellano





# MUJERES EN PIE DE GUERRA

📅 **2022/10/20**  
 📍 ARTIUM MUSEOA  
**VITORIA-GASTEIZ**  
 🕒 **19:00**  
 👤 **Susana Koska**

📅 **2022/10/21**  
 📍 TABAKALERA  
**DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**  
 🕒 **19:00**  
 👤 **Susana Koska**

- 👤 Susana Koska
- 📅 2004
- 🌐 Espainia / España
- 🏠 Diafragma. Loquillo, Carles Balagué
- ✍️ Susana Koska
- 🎭 Sergi Sampol, Susana Koska, Stefan Nicoll, Lorenz Trees
- 🎬 Xavier Burgos i Valencia
- 🎵 José M<sup>a</sup> Sanz, "Loquillo", Gabriel Sopena
- 🔊 Sergi Sampol
- 👤 Sara Berenguer, María Salvo, Rosa Laviña, Rosa Díaz, Neus Català, Teresa Buígues, Carme Puig Antich, Merçona Puig Antich
- ⌚ 74'

Zortzi emakume gerran. Zortzi emakume bake gogoz. Sara Berenguer, María Salvo, Rosa Laviña, Rosa Díaz, Neus Català, Teresa Buígues, Carme eta Merçona Puig Antich dira Espainiako gerra zibila hasi zenetik Franco hil zen arte askatasunaren alde eta faxismoaren aurka borrokatu ziren emakumeen ahotsak. Iraultza, gerra, erbestea, erresistentzia, kartzela eta sindikalismoa. Bere esperientziak, bere sentimenduak, bere testigantza eta historia ez-ofiziala dira, historia liburuetan agertzen ez dena.

Ocho mujeres en pie de guerra. Ocho mujeres en son de paz. Sara Berenguer, María Salvo, Rosa Laviña, Rosa Díaz, Neus Català, Teresa Buígues, Carme y Merçona Puig Antich son las voces de las mujeres que lucharon por la libertad y contra el fascismo desde el inicio de la guerra civil española hasta la muerte de Franco. Revolución, guerra, exilio, resistencia, cárcel y sindicalismo. Sus experiencias, sus sentimientos, sus voces. La historia no oficial, la que no aparece en los libros de historia.

Hizkuntza / Idioma  
 Gaztelania / Castellano



# LA HIGUERA DE LOS BASTARDOS

📅 2022/10/27

📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

📅 2022/10/28

📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 Ana Murugarren

👤 Ana Murugarren

📅 2017

🌐 Espainia / España

🏠 BlogMedia. Joaquín Trincado

📝 Ana Murugarren (Ramiro Pinillaren eleberrri batean oinarrituta / basado en una novela de Ramiro Pinilla)

🎭 Josu Inchaustegui

🎬 Ana Murugarren

🎵 Adrián García de los Ojos, Aitzol Saratxaga

👤 Karra Elejalde, Carlos Areces, Jordi Sánchez, Pepa Anierte, Ylenia Baglietto, Andrés Herrera, Ramón Barea, Mikel Losada

🕒 95'

Eremitau bihurtu den falangista baten istorioa da. Beraren biktimetako baten hamar urteko mutikoaren gorroto-begirada sentitu ondoren, pikondo baten zaintzan harrapatuta geratu da. Seguru dago mutikoak akabatu egingo duela hazten denean.

Historia de un falangista reconvertido a ermitaño, que queda atrapado al cuidado de una higuera después de sentir la mirada de odio de un niño de diez años, hijo de una de sus víctimas, que despierta en él la certeza de que cuando crezca, lo matará.

Hizkuntza / Idioma  
Gaztelania / Castellano



# 1 % ESQUIZOFRENIA

📅 2022/11/10  
📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00  
👤 Ione Hernández

📅 2022/11/11  
📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00  
👤 Ione Hernández

👤	Ione Hernández
📅	2006
🌐	España / España
🏠	Alicia Produce. Julio Medem
🎭	Fernando Fernández, David Tudela
🎬	Ione Hernández, Julio Medem
🎵	Javier Casado
🔊	Sounders Creación Sonora
⌚	70'

“Inork ez daki benetan zer gertatzen den eskizofreniko baten garunean. Dena hutsunez beteta dago, dena dago deskubritzeko...” Ulertezinaren misterioa, inoiz kontatu ez denarena, *1 % esquizofrenia*n agertzen da, garuna kontrolatu ezinaren naturaltasuna eta natura betiko kontatzeko inoiz baino behar handiagoa duenaren indarrarekin.

“Nadie sabe realmente qué es lo que ocurre en el cerebro de un esquizofrénico. Todo son lagunas, todo está por descubrir...” El misterio de lo incomprendible, de lo nunca contado, asoma en *1 % esquizofrenia* con la fuerza de aquel que más que nunca necesita contar para siempre la naturaleza y lo natural de la imposibilidad de controlar la mente.

Auditoriuma Auditorio	Eguna Día	Ordua Hora	Bertsioa Versión	Azpitululuak Subtítulos	Aurkezpena Presentación
<b>CARMEN Y LOLA</b> (Arantxa Echevarría, 2018)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/10/13	19:00	Gaztelania Castellano		
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/10/14			Arantxa Echevarría	
<b>MUJERES EN PIE DE GUERRA</b> (Susana Koska, 2004)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/10/20	19:00	Gaztelania Castellano		Susana Koska
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/10/21				
<b>LA HIGUERA DE LOS BASTARDOS</b> (Ana Murugarren, 2017)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/10/27	19:00	Gaztelania Castellano		
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/10/28			Ana Murugarren	
<b>1 % ESQUIZOFRENIA</b> (Ione Hernández, 2006)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/11/10	19:00	Gaztelania Castellano		Ione Hernández
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/11/11				
<b>POÉTICA PÚBLICA. PLAZA</b> (Esther Pérez de Eulate, 2010)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/11/17	19:00	Dialogorik gabea Sin diálogos		Esther Pérez de Eulate
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/11/18				
<b>TODA LA VIDA DEL MUNDO</b> (Nuria Ruiz Cabestany, 2010)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/11/24	19:00	Gaztelania, Ingelesa Castellano, inglés	Gaztelania Castellano	Nuria Ruiz Cabestany
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/11/25				
<b>AZTARNAK</b> (Maru Solores, 2021)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/12/01	19:00	Euskara, gaztelania Euskera, castellano	Gaztelania Castellano	
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/12/02				Maru Solores
<b>ANDEREA</b> (Yolanda Mazkieran, 2020)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/12/08	19:00	Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa Euskera, castellano, inglés, francés	Gaztelania Castellano	Yolanda Mazkieran
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/12/09				
<b>ASIER ETA BOK</b> (Amaia Merino, 2013)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/12/15	19:00	Euskara, gaztelania Euskera, castellano	Gaztelania Castellano	
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/12/16				Amaia Merino
<b>EMANALDI BEREZIA / SESIÓN ESPECIAL</b>					
<b>ZONBIE EGUNA</b> (Pedro Olea, 2016) / <b>EL BOSQUE DEL LOBO</b> (Pedro Olea, 1970)					
VITORIA-GASTEIZ / ARTIUM MUSEOA	2022/11/03	19:00	Gaztelania Castellano		
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN / TABAKALERA	2022/11/03			Pedro Olea	
BILBAO / ARTE EDERREN MUSEOA	2022/11/04				





# POÉTICA PÚBLICA. PLAZA

📅 2022/11/17

📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

👤 Esther Pérez de Eulate

📅 2022/11/18

📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 Esther Pérez de Eulate

👤 Esther Pérez de Eulate

📅 2010

🌐 Espainia / España

🏠 Esther Pérez de Eulate

🖋️ Esther Pérez de Eulate

🎭 Esther Pérez de Eulate

🎬 Esther Pérez de Eulate

🎵 Óscar García de la Cruz.

🔊 Óscar García de la Cruz


⌚ 71'

7 urtez, 2003tik 2010era, Reina Sofía Museoko plaza filmatzen eman nuen nire balkoitik. Dokumental honek grabaketa horien une adierazgarrienak nahasten ditu: gizarte mugimenduak, aldarrikapen politikoak, bizitza arrunta, emaldiak, nazioarteko ekitaldiak, intimitate handiko uneak, ospakizunak, bizitzako etapak, museoaren eraldaketa, marruskadura pertsonalak, aisialdia...

Durante 7 años, de 2003 a 2010, estuve grabando desde mi balcón la plaza del Museo Reina Sofía. Este documental entrelaza los momentos más representativos de estas filmaciones: movimientos sociales, reivindicaciones políticas, la vida común, performances, acontecimientos internacionales, momentos de gran intimidad, celebraciones, las etapas de la vida, la transformación del propio museo, fricciones personales, el ocio...

Hizkuntza / Idioma

Dialogorik gabea / Sin diálogos



# TODA LA VIDA DEL MUNDO

📅 2022/11/24

📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

👤 Nuria Ruiz Cabestany

📅 2022/11/25

📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00

👤 Nuria Ruiz Cabestany

👤	Nuria Ruiz Cabestany
📅	2010
🌐	Espainia / España
🏠	Elixir Films, Nuria Ruiz Cabestany
✍️	Nuria Ruiz Cabestany
🎭	Iñigo Vázquez
🎬	Javier Recio
🎵	Joserra Senperena
🔊	Ainhoa Crespo
⌚	52'

Bi pertsonen bizi-esperientzia da dokumental honen ardatza: Angel Olan, Etiopian bizi den euskaldun bat, eta Helen Nigusse, Euskal Herrian bizi den etiopiar bat. Angelek 500 umezurtz baino gehiago ditu bere ardurapean Wukron (Etiopia). Helenek, aldiz, lehen munduan jaiotzeko aukera eman ahal izan dio alabari.


La experiencia vital de dos personas -Ángel Olan, un vasco en Etiopía, y Helen Nigusse, una etíope en el País Vasco- sirve de hilo conductor de este documental. Ángel tiene a su cargo más de 500 huérfanos en Wukro, Etiopía. Helen, por el contrario, ha tenido la oportunidad de ofrecer a su hija la posibilidad de nacer en el primer mundo.

Hizkuntza / Idioma

Gaztelania, ingelesa / Castellano, inglés

Azpitulua / Subtítulos

Gaztelania / Castellano



# AZTARNAK

📅 2022/12/01  
📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

🕒 19:00

📅 2022/12/02  
📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

🕒 19:00  
👤 Maru Solores

👤	Maru Solores
📅	2021
🌐	Espainia / España
🏠	Lumière Produksioak. José M <sup>a</sup> Lara
✍️	Maru Solores
🎭	Nere Falagan
🎬	Pello Gutiérrez
🎵	Paula Olaz
🔊	Oier Villa
👤	Cristina Aznar, Ramón Mauduit, Ibone Olza, Laura Gutman, Rafael Benito, José Luis Gonzalo, Herminia Clemente
⌚	85'

Hurtzarooan ereiten ote da zoriontasunaren hazia? Gogoratzen ez ditugun lehen urte horiek aztarna sakonak uzten omen dizkigute. Honako hau, memoriak ahaztutako toki horretara doan bidaia da, gaur naizen amarengandik izan nintzen umearengana doana.

¿La semilla de la felicidad se siembra en la infancia? Los primeros años de nuestra vida, aquellos que no recordamos, dejan una profunda huella. Este es un viaje personal a ese lugar olvidado; un viaje desde la madre que soy ahora hasta el bebé que una vez fui.

Hizkuntza / Idioma

Euskara, gaztelania / Euskera, castellano

Azpitulua / Subtítulos

Gaztelania / Castellano



# ANDEREA

📅 2022/12/08  
📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ  
🕒 19:00  
👤 Yolanda Mazkieran

📅 2022/12/09  
📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN  
🕒 19:00  
👤 Yolanda Mazkieran

🎤	Yolanda Mazkieran Zelaia
📅	2020
🌐	Espainia / España
🏠	Yolanda Mazkieran Zelaia
🖋️	Yolanda Mazkieran Zelaia
🎭	Yolanda Mazkieran Zelaia
🎬	Yolanda Mazkieran Zelaia
🔊	Yolanda Mazkieran Zelaia
👤	Toti Martínez De Lecea, Ixabel Millet, Josu Naberan, Felix Gerenabarrena, Enrike Zelaia, Guillermo Piquero, Patricia Areque, Julia Itoiz
🕒	78'

*Anderea* dokumental errealista eta onirikoa da, euskal mitologiaren pertsonaia nagusian oinarrituta: Mari, Amari, Andere, Señoria edo Anbotoko dama. Paleolitikotik gaur egun arte Euskal Herriaren oroimen kolektiboan bizirik iraun duen aintzinako andere misterioitsua. Mari, euskal mundu primitiboaren metafora handia da eta zorionez, iraun ez ezik, oso lagungarria izan daiteke gaur egungo gizartearen arazoei aurre egiteko.

*Anderea. El fuego de la dama* es un documental realista y onírico, basado en el numen principal de la mitología vasca: Mari, o la Dama de Anboto, ser ancestral y misterioso que se ha mantenido vivo desde el paleolítico hasta nuestros días en la memoria colectiva del pueblo vasco. Mari es la gran metáfora del mundo primitivo vasco, que afortunadamente no solo perdura sino que puede ser de gran ayuda para entender y afrontar los problemas de la sociedad actual.

Hizkuntza / Idioma

Euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa /  
Euskera, castellano, inglés, francés

Azpitulua / Subtítulos

Gaztelania / Castellano



# ASIER ETA BIOK

📅 2022/12/15  
📍 ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ  
🕒 19:00

📅 2022/12/16  
📍 TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN  
🕒 19:00  
👤 Amaia Merino

👤	Amaia Merino, Aitor Merino
📅	2013
🌐	Espainia, Ekuador / España, Ecuador
🏠	Doxa Producciones, Cineática Films, Ainhoa Andraka, Amaia Merino, Aitor Merino, Gabriela Calvache
✍️	Amaia Merino, Aitor Merino
📷	Aitor Merino
🎬	Amaia Merino
🎵	Alex Alvear, Alicia Alemán
🗣️	Asier Aranguren, Aitor Merino
⏱️	94'

Egun batean, Asier, txikitatik nire lagun handia, desagertu egin zen. ETAn sartua zen. Nola azaldu zerk bultzatu ote zuen erabaki hori hartzera, neroni ere kostatzen bazitzaidan asimilatzea?

Un día, Asier, mi gran amigo desde la infancia, desapareció. Se había integrado en ETA. ¿Cómo explicar qué pudo llevarle a tomar una decisión que a mí mismo me costaba asimilar?

Hizkuntza / Idioma  
Euskara, gaztelania / Euskera,  
castellano

Azpitulua / Subtítulos  
Gaztelania / Castellano



**EMANALDI  
BEREZIAK  
PEDRO  
OLEARI  
OMENALDIA  
SESIONES  
ESPECIALES  
HOMENAJE A  
PEDRO OLEA**



**2022/11/03**  
ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ

19:00

**2022/11/03**  
TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN

19:00  
Pedro Olea

**2022/11/04**  
ARTE EDERREN MUSEOA  
BILBAO

19:00  
Pedro Olea

Pedro Olea

2016

Espainia / España

20'

Pedro Olea

1970

Espainia / España

Amboto PC

Pedro Olea, Juan Antonio Porto

Aurelio G. Larraya

José Antonio Rojo

Antonio Pérez Olea

José Luis López Vázquez,  
Amparo Soler Leal, Antonio  
Casas, Nuria Torray, Alfredo  
Mayo, John Steiner, María Rivas,  
Modesto Blanch

87'

## ZONBIE EGUNA

### FILM LABURRA/CORTOMETRAJE


Bilboko zonbiak bere eguna ospatzen dute.

Los zombies de Bilbao celebran su día.

## EL BOSQUE DEL LOBO

Benito Freire kinkilari bat da, errukarri bizi dena ezjakintasuna eta superstizioak nagusi diren giro batean. Saltzaile ibiltari gisa ibiltzen da Galiziako herrietan, eta epilepsia-krisi larriak ditu. Eskualdean zurrumurrua zabaltzen hasi da gizotsoa dela eta deabruak hartua dagoela.

Benito Freire es un buhonero que vive miserablemente en un ambiente dominado por la ignorancia y la superstición. Se dedica a la venta ambulante por los pueblos gallegos y padece severos ataques de epilepsia. Por la comarca empieza a extenderse el rumor de que es un hombre lobo y de que está poseído por un espíritu demoníaco.



**IKASTETXEEI  
ZUZENDU-  
TAKO  
EMANALDIAK  
SESIONES  
DIRIGIDAS A  
CENTROS  
ESCOLARES**

 **2022/12**  
 **ARTIUM MUSEOA  
VITORIA-GASTEIZ**  
 **10:00**  
 **Maite Ruiz de Austri**

 **2022/12**  
 **TABAKALERA  
DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN**  
 **10:00**  
 **Maite Ruiz de Austri**

 Maite Ruiz de Austri

 2013

 Espainia / España

 Extra Producciones  
Audiovisuales, Iñigo Silva

 Juan Velarde, Maite Ruiz de  
Austri

 Pedro Calero

 93'

## LUCIUS DUMBEN BEREBIZIKO BIDAIA

Zientzialari oso adimentsu eta zoro batzuek erabaki dute haie-tako batek Lur planeta baketsu bihurtzeko tresna baten bila abiatu behar duela, zorientasuna nagusi izan dadin. Lucius Dumb aukeratu dute, zientzialari gazte, lotsati eta zintzoa. Bidean, Luciussek Irakaslea eta Komandantea ezagutu ditu, bi estralurtar atsegin ontzia matxuratu zaienak eta energia-iturri indartsu bat behar dutenak bateriak kargatzeko.

Un grupo de científicos muy inteligentes y muy locos deciden que uno de ellos salga en busca de un instrumento que permita convertir la Tierra en un planeta pacífico, en el que reine la felicidad. El elegido es Lucius Dumb, un científico joven, tímido y bondadoso. Por el camino, Lucius conoce al Profesor y al Comandante, dos simpáticos extraterrestres que han tenido una avería en su nave y necesitan una fuente de energía muy potente para recargar sus baterías.

Informazio gehiago | Más información | More information

[www.filmoteka.eus](http://www.filmoteka.eus)

# ZINEMA ETA ZIENTZIA CINE Y CIENCIA CINEMA AND SCIENCE

Antolatzaileak | Organizadores | Organizers

